BEA UGARTE
HEZKIDETZA LANTZEKO KLABE BATZUK

BEA UGARTE
HEZKIDETZA EREDUA LANTZEKO KLABE NAGUSIAK .

Filosofian Lizentziatua
Filosofia irakaslea izanda
Oraingoan egiten ditudan lan nabarmenenak: Gasteizko Berritzeguneetan
Bigarren Hezkuntzako aholkularitzan ,LABeko Emakumeen idazkaritzan
eta Arrasateko Udaleko Berdintasun Plana.

Historian zehar garatu diren hezkuntza –ereduak sistema patriarkalaren arabera finkatutako **genero maskulino** eta **femeninoa**ren hierarkizazioan oinarritu izan dira , eta hierarkizazio horrek eragin handia izan du hezkuntzan . Izan ere, hezkuntza da sistema guztiek , zenbat pentsaera-eredu eta portaerazko jarraibideri jarraiki, pertsonak hezteko duten baliabiderik garrantzitsuenetarikoa.

Gaur egungo Eskola Mistoan, itxuraz , "sexuen arteko aukera-berdintasuna" ematen da. Ikasgeletan neskatoak eta mutikoak elkarrekin egoten dira, eta irakasle berberak, liburu berberak, eskola jarduera berberak....izaten dituzte. Irakasleei ere neskatoak eta mutikoak berdin hartzen ditugula iruditzen zaigu .....

Berdintasun horren azpian , ikasleek osatzen dituzten bi taldeen artean, hierarkia eta desberdintasuna izaten da nagusi , baina ezkutuko errealitate hori ikustea ez da erreza izaten. Hau da, gaur egun gizarte "demokratiko" modernoetan, eskolan edo famili bizikidetzan ikusten den berdintasun-itxura horren azpian, oraindik ere generoan oinarritutako hezkuntza estereotipoak, hots, hezkuntza sexitak, bizirik dirau

Estereotipo horiek soziokulturalki sortu dira eta , sexua-generoa okerreko **identitatearen eraikuntzan** oinarritzen direla, gaitasun eta balore desberdinak ezartzen dizkiete gizonezkoei eta emakumezkoei

Argi ditzagun pixka bat oraindik ematen diren egoerak. Eskolan gizartean dagoen eredua islatzen da , hau da maskulinitate eredu hegemonikoa . Eta oraindik horrelako fenomenoak ikus ditzakegu : espazioen jabeak mutilak izaten dira , hizkuntzaren erabilera sexita , curriculum gordearen bidez *kultura femeninoaren* baloreen gutxiespena eta *maskulinoen* goraipena ,elkarbizitzarako arauak gehienetan mutilen jarrerek sortzen dituzten arazoei begira jarrita daude, ikasten duten jakintzetan eskeei ez zaizkie emakumezko eredurik ematen, nagusiok beraiekiko ditugun espektatibak ez dira berdinak , ematen zaien jakintza androzentrikoa da,liburuek eta ...kutsu sexitak dituzte, antolamendua eta arduren banaketa askotan estereotipatua izaten da, gelako protagonistak gehienetan mutilak izaten dira, neskei mutilak bezala izan daitezkeela esaten zaie baina mutilei alderantzizkoa ez , kirolak gehienetan mutilek garatutakoak izaten dira , neskek garatutako gaitasunak ez dira baloratzen ezta ere lantzen (emozioak, afektibitatea, lankidetza, intuizioa....), joko *femeninoak* ez dira baloratzen, adin askotan mutilak mutilekin ibiltzeko beharra sentitzen dute eta neskak neskekin.....eta horren guztiaren ondorioz kultura eta identitate ezberdinak garatzen dituzte.

Gure eskoletan neskak eta mutilak ,bai, elkarrekin daude, baina beren identitatea garatzeko oztopoak dituzte..Mutilak , alde batetik, behartuta sentitzen dira , *benetako gizona izateko* gizarteak , eskolak, talde berak inposatzen dizkieten baloreak eta jarrerak barneratzera; eta neskak, beste aldetik, gizartean (eta eskolan) baloratzen diren *gaitasun eta jarrera maskulinoak* izan behar dituzte , baina , aldi berean hau ez zaie berdin baloratzen eta *feminitatea* garatu behar dute *benetako emakumea* izateko .

Horiek horrela , behar-beharrezkoa da genero-estereotipoak bertan behera utzi eta pertsona berreskuratzea, bere identitatearen garapena sustatzea eta **hazkunde integrala**ren alde egitea.Honetan datza Hezkidetza. **Identitatea**ren garapenak oinarrian zera eskatzen du : **independentzia**, **autonomia** eta **norberaren baieztapena**ren garapena

Gizarteak neskei lotzen dien rolak egiten dien kaltea urteak egin ditugu salatzen feminismoan..Aldi berean, premiazkoa da **eredu maskulino hegemonikoa** ere salatzea, mutilei eskatzen dizkielako ondoko ezaugarrietan oinarritzen diren jarrera ereduak: gogortasuna, meneratzeko desioa, emozioekin lotura baztertzea, emakumeekiko tratu txarra eta errespetu falta , arriskua eta borroka gustukoa izatea, zer nolako "matxoa" den bere buruari momentu guztietan probatuz.
Baina maskulinitatearekin ez gara jaiotzen, ikasi egiten da , familia, irakasleak eta inguruko guztiekin dagoen harremanekin, jasotzen den heziketarekin, hazten den eredu eta erreferenteekin, ipuinak, jokoak, telebista eta bestelako irudiekin, inguruko gizartearekin... Baina jakin behar dugu zer den maskulinitate hori, gizonek nola eraikitzen dute bere pertsona. Historiari begiratzen badiogu, gizonek bere gizontasuna eraiki dute emakumeetaz eta femininitatearekin zer ikusia zuen guztietaz bereizteko ahaleginak eginez. Beraien identitatea ukaziotik abiaturik egiten da , femeninoa kontsideratzen den guztia eta umetatik kontrako balitz bezala erakutsi zaien horretatik urruntzea da gizon egiteko modu onena. Gainera maskulinotzat hartzen dena gizartean balioa, prestigio handiagoa duela eta batez ere , nahiz eta kasu batzuetan salatzeko izan arreta gehiago ematen zaiola ere ikusten dute
Emakume feministek guretzat diseinatutako tradiziozko *feminitate* eredua birplanteatu dugun moduan,garapen integralerako lagungarri ez zaigulako egiten, gizarteak *maskulinitate* eredu hegemonikoa ere zalantzan jarri beharko luke gizonen garapena ere integralagoa ahal izateko

Lehen komentatu dudan moduan, gizarte patriarkarrak sexuaren arabera pertsonak bi taldetan ezberdintzen ditu: gizonezkoak eta emakumezkoak, eta talde batekoa edo bestekoa izateagatik bizitza era batean edo bestean programatzen die, generoarekin lotutako talde identitatea garatuz,*maskulinoa* deiturikoa gizonentzat eta *femeninoa* emakumezkoentzat.
Gure gizartean indarra duten baloreek errealitatea interpretatzeko modua inposatzen dute. Zer dagoen ondo eta zer txarto esaten digute, zer baloratzen den eta zer ez, zer egin dezakegun eta zer ez...Inposaturiko kode horretara moldatu ez gero onartuak izango gara, bestela ez. Pertsonei, besteengandik bereizten gaituzten ezaugarriekin, ez zaigu autoritaterik onartzen. Egokitu diguten kolektiboaren parte garen neurrian autoritatea onartuko zaigu.[1] Eta hierarkian oinarritutako harremanak sortzen dira, meneratze-men egitea da harremanen paradigma . Pertsonaren gaitasunen garapen mugatua, nork bere burua ez ezagutzea eta jabetza falta izateaz gain, ez dago errespeturik ezta ere gure artean ulertzerik. Horren ondorioz, ez dugu zoriontasunik lortzen, gure buruarekin eta gainontzekoekin ere harremanak ez dira onak, eta auto-estimua eta askatasuna falta zaigu. Zeren eta hasierako genero inposaketa honekin gero bestelako hierarkiak batzen dira: etnia, erlijioa, gizarte maila ekonomikoa, harreman sexualak eta afektiboak, sinismenak, adina, ezaugarri pertsonalak...Baina ezin dugu ahaztu guztiekin lotuta generoarena dagoela.
Hezkidetza ereduak globala izan behar du, PERTSONA ardatz gisa hartzen duena. Hezkuntza-ereduak eta horiek gizakien generoaren eraikuntza soziokulturalarekin ze nolako lotura duten aztertu ondoren eta, filosofiako, psikologiako eta pedagogiako tratatuetan ikuspegi erabat androzentrikoa azaltzen dela kontuan hartuta, pertsona-kontzeptua berriz definitu beharra dagoela argi eta garbi nabarmentzen du . Beraz, generoaren eraikuntza alde batera utzi behar da, hori delako giza garapenerako oinarrizko traba.
Hezkidetza ereduak hezkuntzaren ikuspuntutik entitate globaltzat hartzen du pertsona, honako dikotomiak apurtuz: adimena eta gorputza, esparru afektiboa eta kognitiboa eta esparru pribatua eta publikoa, azken hauetan autonomia eta independentzia bilatuz.
Birdefinitu egiten du *pertsona* kontzeptua. Definizio hori gaur egungo gizarte-ereduak zalantzan jartzen dituen filosofia eta pedagogia pentsaera-eredu zabalago baten baitan planteatzen da. Izan ere, gizarte-egitura horiek taldeko baloreen inposaketan oinarritzen dira, boterea menpekotasun-sistemen eskuetan eta horiek ordezkatzen dituztenen eskuetan dagoela. Beraz, pertsona-kontzeptua nortasuna,

[1] Kasu honetan ere emakumeok arazo bikoitza dugu. Alde batetik, onartuak ahal izateko genero femeninoarekin lotutako identitatea garatu behar dugu, gizonezkoei genero maskulinoarekin gertatzen zaien moduan. Baina, beste aldetik, gizartean *femeninoa* kontsideratzen denari ez zaio autoritaterik onartzen. *Maskulinoa* kontsideratzen denari,berriz ,bai eta ondorioz boterea du.

autonomia, singulartasuna, askatasuna...dituen unitatetzat hartu behar dugu. Horretaz gain, gizartea eraldatzeko gai dela eta desberdintasun gutxiago izango dituen mundu justuago antolatzeko gai dela ere hartu behar dugu kontuan.

Beraz, IDENTITE PERTSONALaren garapenaren paradigma da kontuan hartu behar duguna pertsonaren garapen integrala bermatzeko eta pertsona eta gizarte eredu berriak eraikitzeko, non norberak bere boterea ezagutzen baitu, protagonismoa baitu eta bere autoritatea gauzatzen baitu. Horrek suposatzen duena zera da, generoaren analisia dugula ikuspuntua (estereotipoak apurtu eta bakoitzetik positiboa dena berreskuratu) eta eskubideen onarpena eta pertsona bakoitzaren botere pertsonala oinarri dituen bizikidetza ereduaren alde apustua egiten dugula. Beti ere errespetua eta elkartasunean eta elkarren arteko arduran oinarritutako harremanak bultzatuz.
Pertsonaren garapenaren ardatza identitatea da baina bost esparruetan (adimena, gorputza, emozioak, soziala, identitatea) garapen orekatua izatea bultzatu nahi dugu. Pertsona bost esparru horiek osatzen dutenez eta esparru guztiak elkarrekin harremanetan daudenez, eredu hau esparru bakoitzeko oinarrizko gaitasunen garapenean saiatzen da, horrela, pertsona orok bere haziera integrala eta bere bizitza-proiektu pertsonala harmonia, errespontsabilitate eta konpromiso pertsonal zein sozialaren bitartez eratuko duelarik.
Horretarako ezinbestekoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan klabe nagusiak ez ahaztea: sintonian egotea (nork bere buruarekin eta taldekideekin), elkar bizi izatea, ikasten jakitea, ondo komunikatzea eta gatazkak tratatzen jakitea.
Esparru horien garapena bizitza osoan zehar eta eremu ezberdinetan izaten da eta esan dezakegu parekidetasuna eta berdintasuna direla ibilbide hori gidatu behar duten baloreak. Eskolan, familian, lanean, lagunen artean...egunero aukera asko agertzen zaizkigu gizarteak inposatutako baloreak kuestionatzeko eta garapen integralerako urratsak emateko eta, azken finean, denok nahi eta behar duguna, zoriontsuago bizitzeko.

Beraz, esan dezakegu sistema sozialak kanpotik inposaturiko estereotipoak zalantzan jarririk, IDENTITATE PERTSONALAK garatzeko bidea zabaltzen duela eredu honek.

Estereotipoak gainditu, pertsona guztiek bost esparruetan era sistematiko batez lan egiteko proposamena da hau; hausnarketa eta erabakiak hartze prozesu honetan adimena ere mugarik gabekoa erabili behar dugu , hau da, gure kultura patriarkarrean inposatu den pentsamendu dikotomikoa, (arrazoimena/sentimendua) gainditu duen adimena, pentsatu, sentitu, esan eta egiten dugunaren arteko koherentzia bilatuko duen adimena, bizitzako esparru bakoitzean gertatzen denari erantzun egokia emateko gai bihurtzen duen adimena.

Edozein ikaskuntza prozesuan bezala ebaluazioa ezinbestekoa da. Ebaluazioak, aldi berean ikasteko metodoa izanik, balioko du nork bere buruaren balorapena erantzukizunez egiteko, beti ere nor bere bizitzaren protagonista izanik.

Beste aldetik, pertsona eta gizartearen garapenerako norberak bere buruarekin eta besteekin harreman positiboa izatea garrantzitsua denez eta heziketa harremanen bitartez eratzen denez, ezinbestekoa da gure ikastetxeetan ditugun harremanak aztertzea.

Askotan harremanetan menperatzen dute meneratze-men egitean oinarritutako balioek, hau da, maskulinitate eredu hegemonikoa inposatu egiten da gure harremanetan eta horrek berak indarkeria sortzen du. Eskoletan harrigarria da egoera. Irakaskuntzan emakumeen presentzia handia da eta, nahiz eta beste esparru publikoetan baino gutxiago, baina orden sinboliko maskulinoan mugitzen gara berriz , inposatu egiten dira hor ere meneratze-men egitean oinarritutako harreman konpetitiboak, hierarkikoak...

Gizarte egiturek, hezkuntza barne , legitimatu egiten dituzte botere desorekatuan oinarri duten harremanak. Mutilek Historia, aurkikuntzak, Artearen obra nagusiak, munduan eragina handiena duten erabakiak..... eta abarren protagonistak direla jarraitzen dute ikasten
"Normala" dena beti ere patroi maskulinoarekin neurtu da.
Maskulinitateaz dagoen hausnarketa faltak oztopoak jartzen ditu beste gaietan eman den aurrerapena maila honetan ere izateko . Maskulinitate kontzeptuaz birplanteaketarekin hasita egongo gara eskolan bi mutiko musuka ikusteak ez gaituenean larritzen eta beraien arteko afektibitatea azaltzen dutenean baino beraien artean jotzeak gehiago larritzen gaituenean . Azkeneko hau jokoa ,adineko kontua bezala ikusten dugu askotan, eta bestea gutxienez harritu egiten gaitu ez bagaitu ere deseroso sentiarazten.
Zentzu honetan eskolan eta gizartean ez da egia esaten, eta esaten bada ere, esku hartzeko momentuan ez da kontuan izaten. Azalduko dut. Maskulinitate hegemonikoaren identitatearen arazoa dena, eskolaren arazo bezala tratatzen ari da eta eskolako politikan eta bertan dauden harremanetan esku hartu nahi badugu bereiztu behar ditugu.
Azterketak eta ikerketak egiterakoan beharrezkoa den sexuaren bereizketaz ari naiz Eskoletan ematen diren harremanetan agresibitatea, indarkeria, bazterkeria, motibaziorik eza ....dagoela esaten dugunean arazoa benetan non dagoen ondo identifikatzea garrantzitsua da. Zera da arazoa,oraindik asko falta zaigula sakonean eredu maskulino hegemonikoa kuestionatzeko eta historikoki femeninotzat hartu diren kultura eta jakindurian konfiantza eta oniritzia indartzeko

Esku hartze egokia egiteko jakin behar dugu indarkeriak eta diskriminazioak gure harremanetan agintzen duen orden sinboliko maskulinoarekin zer ikusi handia dutela eta gure harremanetan historikoki femeninoak bezala ikusita eta seriotasunez hartu izan ez diren eta oraindik ere hartzen ez diren balioek sortzen duten orden berria izateko apustua egin beharko genukeela

Gu gatozen kultura pentsamendu dikotomikoa da eta honetan arrazoimena, gizarteari dagokiona gizonezkoei dagozkie eta sentimenduak emakumezkoei, esparru pribatuari. Honek guztiak indarkerian eta botere desorekan oinarritutako harremanei buruzko hausnarketa egiteko oztopoa suposatzen du.
Harremanetan aldaketa nahi badugu, menperatzen duten ohiko parametro maskulinoak baztertu , publikoa-pribatuaren arteko dikotomia apurtu , femeninotzat jotzen den afektibitatea harremanetan , esparru publikoan barne, osagaia dela onartu eta epaitu barik edozein sentimendu identifikatu behar dugu . Horrek guztiak egia esaten lagunduko liguke. Eta egia eta harremana erlazio estuan daude.

Ikuspuntu honetatik , bizikidetzak esparru guztietako harremanetan izaki bakoitzaren ongi-egotea ahalbidetzea du helburu nagusia. Hori lortzeko ditugun oztopoak aztertu beharko genituzke: gizarteak inposatutako beharrak eta benetan norberak behar duena bereizi.
Egia da taldean bizitzeko jarraibideak beharrezkoak direla, denoi ondo egoten lagunduko digutenak. Gela eta ikastetxeko bizikidetzaren kudeaketa bertako pertsona ororen erantzukizuna da: denen artean jarraibideak edota arauak sortu, martxan jarri eta betetzeko ardura hartu ere bai.

Bizikidetzarako arauak sortzeko prozesuan ondoko aspektuak kontuan izango ditugu:

1. Ondo sentitzeko behar duguna identifikatzea. Honetarako nork bere burua ezagutzeko tresnak behar dira. Pertsona bakoitzak bere beharrak izateaz gain, neska eta mutilek dominazio-sumisio sozializazio prozesu ezberdina bizi izanagatik egoera ezberdinak erakusten dituzte.
2. Identifikatu gaizki sentiarazten gaituzten hainbat egoera. Normalean egoera horiek gatazkekin lotuak daude. Irtenbidea birziklapenaren bidez aurkituko dugu, bestela gatazka pertsona bezala hazteko bidea izan beharrean, maiz oztopo gaindiezina bihurtzen baita. Birziklapen prozesu honetarako ezagutu behar ditugu jarrera horien zergatiak eta ondorioak. Honetarako nork bere emozioak ezagutzeko baliabideak behar dira, min egiten dutenei buelta eman eta positibo bihurtzeko.

Arauak lantzeak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatuak dauden pertsona guztien lankidetza eskatzen du. Hausnarketa eta guztien arteko eztabaida prozesua da. Prozesu honetan zintzotasuna, errespetua, malgutasuna , komunikazioa eta konpromisoa izango da bultzatuko dena. Ikastetxeetan ageri diren oldarkortasuna, indarkeria, bazterkeria, motibazio eza... dagoela esaten dugunean arazoa benetan non dagoen ondo identifikatzea garrantzitsua da. Oraindik asko falta zaigu sakonean dominazio-sumisioan oinarrituriko eredu maskulino hegemonikoa hankaz gora jartzeko eta historikoki "femeninotzat" hartu diren kultura eta jakiturian konfiantza eta oniritzia indartzeko; historian zehar emakumeok garatutako hainbat gaitasun (emozioak, afektibitatea, lankidetza, intuizioa....) bizikidetzarako eta gatazken konponbiderako garrantzi handia dute.

Pertsonari buruzko ikuskera globala izango duen, pertsonen garapen integrala sustatuko duen eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko hierarkizazio soziokulturala gainditukо duen hezkuntza-eredua eraikiz gero, gaur egungo eskola mistoa hezkidetza-eskola bihurtzea lortzea planteatzen du hezkidetza ereduak

Paradigma[2] berri honek ondoko hauek kontuan ditu:

1. Bakoitzaren baliabide pertsonalak kontuan hartzea behar indibidualei eta taldekoei erantzuna emateko, pertsona osatzen duten bost esparruen garapen orekatua bultzatuz (adimena , gorputza, emozioak, soziala eta identitatea)
2. Ikasgelaren programazioak lantzeko, bi ibilbide erabiltzea: curriculum arloena eta Orientabidea eta Tutoretzarena , hazkunde integralerako jarraibideak eta bizikidetza-arauak finkatzeko oinarria izango direnak
3. Bi ibilbideetako curriculumaren ardatza jarrerak izatea. Jarrera ardatza ezinbesteko erreferentea izango da ikasleen gaitasunen garapenean oinarritutako irakaskuntza planifikatzerakoan eta, horretaz gain, horien garapen-maila neurtzeko ere balioko du.
4. Ikaskuntza autonomoa eta funtzionala .
5. Adimen globala lantzea pentsamendua, ekintza eta sentimenduaren arteko koherentzia izanik
6. Berdintasuna eta parekidetasunean oinarritutako harremanak ezartzea autorregulazioa, errespetua eta bizikidetzaren kudeaketa autonomoaren bidez.
7. Gatazkak era osasuntsuan bideratzea, hausnarketa eta konpromisoaren bidez,erantzukizuna eta elkarren arteko erantzukizuna garatuz.

8. Meneratze-men egin harremanetan oinarritutako paradigma akademizista eta patriarkarra zalantzan jartzea eta pertsona bakoitzeko ahalmenak onartzen dituen paradigma berria erabiltzea: Identitate pertsonalaren paradigma. Honetan pertsonak bere boterea ezagutzen du, protagonismoa du eta bere autoritatea gauzatzen du
9. Nork bere burua eta besteen ezagutza, auto-estimua, onarpena, errespetua eta aniztasunari balioa ematea.
10. Gizadiaren garapenerako emakumeek egin dutena kontuan hartzea
11. Garapen pertsonalerako lagungarriak diren teknikak sartzea: erlaxazioa, bisualizazioak...
12. Irakaskuntza eta orientabidea nork bere burua orientatzeko bideak izatea, bai maila pertsonalean, ikasketetan eta profesionalean ere bai
13. Curriculumaren bidez , bi ibilbideetan (arlo edo ikasgai ezberdinak eta Tutoretza) hazkuntza pertsonala bermatzea, generoek sortzen dituzten bazterkeriak gainditux. Estereotipo kulturalak, sozialak, ezaugarri fisiko edo psikikoagatikoak, aukera sexuala dela eta dauden estereotipoak...ere bai

[2] Pentatasunak proposatzen dituena